

Betaurreko lurrunduen halabeharra



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Arauk haustea ez da beti gaiztakeria. Eta, kamarada mai-teok, arauak haustea ez da beti transgresioa. Baina literatura ba omen da araua haustea. Logikaren araua, ohizkoarena, halabeharrarena hautsiz pizten ei da literatura neurri handi batean, harik eta, jakina, araua errepikaren errepikaz gehixotan hautsi eta arau-haustea literatura ez baizik arau bihurtzen den arte, edo topiko, edo klixe, edo kolokazio ihartu (edo literaturaxar, lerrake baten batek). Arau-haustea izanagatik, ordea, literaturak baditu bere norma eta zedarriak ere. Besteak beste egiantzekotasunaren legearekin ezkontzera behartu ohi da narratiba, esaterako.

Eztula baino zaharragoa da kontua: egiatan gertatzen diren zenbait gauza (bitxiaren bitxiak, apartekoaren apartekoak, kasualitatearen kasualitateaz segituan hurbilekoei kontatu nahi izaten dizkiegun pasadizo edo are aro surrealista batzuk) errealistegiak izaten dira ia, errealitatearenegiak ia, adibidez prosa narratiboan egiantzekoak suertatzeko. Lan eta maisutasun eskerga eta oro har baliabide material gutxienekoak eta zorte pixka bat ere behar izaten dira gauza errealegi horiek literaturara eta

artera ekarri eta funtziona dezaten. Zorionez, bada horretarako kapazik.

“Arteak aukeratuko lukeen amaiera ez du beti bizitzak hautatzen, gero bizitzak arteak kontatzen diona sinesten duen arren. Hori da izan, artearen akabuko garaipena: munduak harekiko duen sinetsitasuna”. Harkaitz Canoren *Fakirraren ahotsa*-ren narratzailearen hitzak, horra. Galdera pertinentea da, beraz, zertarako ekartzen duten orduan idazleek ekartzen dutena (jakina baita idazleek oro har ekarri egiten dutela, asmatu baino gehiago): zer eta nola gertatu den jakiteko? Ala modu jakin batean gertatu dela sinetsi eta sinetsarazteko? Ala sinetsi eta sinetsarazteko ezen literaturak kontatzen duen zera desiragarriago edo diferenteago edo ameskarago horren isla dela bizitza, eta ez literatura bizitzaren isla desiragarriago edo diferenteago edo ameskaragoa?

“Konturatu zara [...] amets bat kontatzen denean, aldatu egiten direla gauzak, ezin direla amestu diren bezala kontatu, kontatzeko ere lar direla, ezin direla narrazio natural batean eman?”. Unai Elorriagaren *Iturria*-ren protagonistetako baten hitzak, horra. Eta memoriak beti du kutsu ameskara lauso hori; bestela, ez litzateke hain

auzi inportantea eta zaila, ez memoria bera, ez haren errelato edo kontakizun ditxosozkoa. Arazoa da ametsak beste mundu bat diren bezala iragana ere beste mundu bat dela, eta sekula ezin dela mundu horren barrutik mundua xuxen kontatu. Barruegitik, hurbilegitik, ezin da. Hipermetropia esaten diote oftalmologoen. Gertatua nolabait kontatzeko, sailkatzeko eta balioesteko, perspektiba behar da, distantzia eta denbora alegia, baina, perspektiba bat ontzeko bide horretan, galdu egin ohi dira hain justu xehetasunak, izandako hura izan zena bihurtu zuten markak; hots, lausotu egiten da nolakoa izan ote zen kontagai dugun hori: euforia-antsietateen aldi bat ala poz-tristurena, patata-azalena ala odolkiarena ala borondatezko barauarena, aisiarena ala deskantsuarena, sutondoarena ala erresilientziarena, diskurtsoena ala berriketarena... Historiari ezinbestean erortzen zaizkio poltsiko-zulotik istorioak. Besteak beste horiek xorro-xorro biltzeko daukagu literatura, ahozko eta idatzizko arau-hauste hori.

Biharamunaren leiar lurrunduetatik begiratzuz mamituko dute historialariek ez ezik istoriogileek ere gure (kuts)aldi hauen memoria. ●